

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ASPARRENEKO UDALA

Behin betiko onespena ematea onura publikoko 306 mendian, "Apota-Ubarrundia" izenekoan, fruitu, perretxiko, landare eta loreen aprobetxamendua arautzen duen zerga ordenantzaren aldaketari

Jendaurrean jartzeko arauzko epean erreklamaziorik aurkeztu ez denez, iragarkia 2019ko abenduaren 18ko ALHAOn (145. zk.) argitaratu zenetik, behin betiko onetsi da "Apota-Ubarrundia" onura publikoko 306 mendian fruitu, perretxiko, landare eta loreen aprobetxamendua arautzen duen ordenantzaren 8. artikulua aldatzeko espedientea. Hau da, hitzez hitz, onartutako aldaketaren edukia:

OPko 306 mendian, Apota-Ubarrundia izenekoan, fruitu, perretxiko, landare eta loreen aprobetxamendua arautzen duen ordenantza

Zerga kuota

8. artikulua

1. Ondoko kuota hauek ezartzen dira OPko 306 mendian fruitu, perretxiko, landare eta loreen aprobetxamendua egiteko, ordenantza honetan xedatutakoaren arabera. Aprobetxamendutzat zera hartzen da: perretxikoak, fruituak, landareak eta loreak biltzea, kontsumitzeko edo komertzializatzeko.

a) Zazpigarren artikuluko 1.1 puntuan aipatutako pertsonak denboraldiko baimena eskuratu beharko dute. Asparreneko eta Donemiliagako udalek emango diete baimen hori, udal bulegoetan edo horretarako izendatzen diren erakunde laguntzaileetan. Denboraldi bakoitzeko 6 euro ordaindu beharko dute.

Denboraldiko baimen hori baliouduna izango da OPko 306 mendirako eta, hala dagokienean, hitzarmen eta ordenantza egokien arabera sor daitekeen esparru bakarraren barruan sartutako mendi guztietarako.

b) 1.2 puntuan adierazitako pertsonak baimen berezia eskuratu beharko dute, alkateek edo haiek eskuordetzen duten zinegotziak berrikusia.

c) Zazpigarren artikuluko 2. puntuan sartutako pertsonak Asparreneko eta Donemiliagako udalek emandako eguneko baimen bat eskuratu behar dute, udal bulegoetan edo horretarako izendatzen diren erakunde laguntzaileetan, eta pertsonako eta eguneko 5 euro ordaindu beharko dituzte. Era berean, asteko abonuen gisako baimenak emango dira, pertsona bakoitzeko 22 euroko prezioa izango dutenak, eta denboraldi guztirako abonuenak ere, pertsona bakoitzeko 52 euroko prezioa izango dutenak.

2. Aprobetxamendu kuota, dagozkion baimenak eskatzen eta eskuratzen direnean sortuko da.

3. Aprobetxamendu kuota ordaindu beharra duten subjektu pasiboak perretxikoen, fruituen, landareen eta loreen aprobetxamendurako baimenak ematen zaizkien pertsonak izango dira, edo, baimen egokirik gabe arituz gero, aprobetxamendutik onura hartzen dutenak.

Erabaki hori behin betikoa izango da administrazio bidean. Beraz, haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da EAEko Auzitegi Nagusiko

Administrazioarekiko Auzietarako Salan. Horretarako bi hilabeteko epea egongo da, erabakia argitaratu eta biharamunetik aurrera. Hori guztia, Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 10. eta 46. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Halaber, administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri aurretik, berraztertze errekurtsua jarri ahal izango da, erabaki hau hartu duen organoari zuzendua. Horretarako hilabeteko epea egongo da erabakia argitaratu eta biharamunetik hasita.

Hori guztia gorabehera, bidezkotzat jotzen den beste edozein errekurtsu aurkeztu ahal izango da.

Araia, 2020ko otsailaren 4a

Alkatea

CONSUELO AUZMENDI JIMÉNEZ